

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

778

EBAZPENA, 2019ko otsailaren 5koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, bai euskaratik gaztelaniarako eta bai gaztelanitik euskararako zinpeko interpretearen habilitazioa eskuratu izanaren izendapena egiteko dena, eskatzailea Itzulpengintza eta Interpretazioko tituluaren jabe izanda, eta unibertsitateko ziurtagiri akademikoaren bidez baieztatuta berariazko prestakuntza duela.

Kulturako sailburuaren apirilaren 21eko 88/2009 Dekretuaren bidez zinpeko itzultzaile eta interprete gisa aritu ahal izateko gaikuntza profesionala arautu zen.

Dekretuaren 7.2 atalean adierazten da horretarako berariaz deitutako probak egin gabe izendapena eskatzeko aukera.

Hori horrela, artikuluko horren arabera, zinpeko itzultzaile nahiz interprete izendapena eska dezaketen araututako probak egin gabe, besteak beste, Itzulpengintza eta Interpretazioko tituluaren jabe direnek, baldin eta unibertsitateko ziurtagiri akademikoaren bidez baieztatzen badute berariazko prestakuntza dutela.

Horri jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Claudia Maria Torralba Rubinos andrearen interprete lanetarako habilitaziorako izendapena egitea, Itzulpengintza eta Interpretazioko tituluaren jabe izanda, unibertsitateko ziurtagiri akademikoaren bidez baieztatu baitu berariazko prestakuntza duela.

Bigarrena.— Izendapen hori Zinpeko Itzultzaile eta Interpreteen Erregistroan jasotzea.

Hirugarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.— Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen eta bere aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 5a.

Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
MIREN DOBARAN URRUTIA.